

EROSKI-K ETA GUREAK TALDEAK EROSKI-AKADEMI SORTU DUTE, DESGAITASUNA DUTENENTZAKO PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU IBILBIDEAK BULTZATZEKO

- **Aliantza horrek lankidetzaren eredu egonkor bat ezartzen du, berekin konbinatzen baititu prestakuntza, egiazko lan inguruneak eta enplegu eskuragarritasuna, inklusio soziolaboralaren mesedetan**
- **EROSKI eta GUREAK taldea elkarrekin ari dira 2015etik, orduan ireki baitzuten Espainia mailako lehen supermerkatua osoki desgaitasuna dutenek kudeatua.**

Elorrio, 2026ko irailaren 24. - [EROSKI](#)k eta GUREAK taldeak hitzarmen bat sinatu dute **EROSKI-AKADEMI** abian jartzeko, hots, proiektu bat desgaitasuna dutenen inklusio soziolaborala bultzatzen duena ibilbide pertsonalizatuaren bidez. Ibilbide horietan egiazko lan inguruneak baliatzen dira prestakuntza, praktikak eta enplegu aukerak emateko.

Jarraipena emateko bokazioarekin sortu zen ekimena, eta orain beste pauso bat eman dute bi erakundeek lan merkatu inklusiboagoa eraikitzearen konpromisoan; konpromiso horren oinarrian dago desgaitasuna dutenei enplegu eskuragarritasunean laguntzea, batik bat laguntza premia handiena dutenei.

Izan ere, hitzarmenarekin, lankidetzaren eredu jakin bat ezarriko dute 2028ko amaierara arte, modua emango duena pausokako ibilbide bat garatzeko partaide bakoitzaren gaitasunetara eta beharretara egokitua. Hala, ikaskuntza eta laguntza fase batzuen bitartez, EROSKIren lantaldera inkorporatzeko aukera izango dute.

Bi konpainiak 2015ean hasi ziren elkarrekin lanean, orduan ireki baitzuten Espainia mailako lehen supermerkatua osoki desgaitasuna dutenek kudeatua. Ordutik, harremana indartu eta ugartu egin da; esaterako, harremanaren ondorioz dira egiazko lan inguruneetan lanerako prestakuntza ematea, Eroskiren dendetarako langileak kontratatzea eta osorik dibertsitate funtzionala dutenek kudeatutako Eroski City denda frankiziatu berriak ireki izana EAEn. Maiatzean, gainera, "GUREAK Labea" marka propioa gozokien lehenengo linea aurkeztu zuten. Eroskik aktiboki parte hartu du bai produktuaren diseinuan eta bai haren komertzializazioan. Bestalde, berriki, GUREAK taldearen Datapost dibisioak kooperatibaren web korporatibo berria garatu

du. Beraz, hitzarmen berria sinatuta, berretsi egin dute orain dela hamar urte baino gehiago elkarrekin abiatutako bidea.

Honela mintzatu da **Jose Maria Cabanillas, Eroskiren plataformetako pertsonen zuzendari** eta **Eroski Taldearen Aniztasunaren, Orekaren eta Inklusioaren lantaldeko koordinatzailea**: "Eroskin, gure izaera kooperatiboa dela medio, konprometituta gaude ingurunearekin eta gizartean inpaktu positiboa eratzearekin. Gureak taldearekin balioak partekatzen ditugu aniztasunaren, ekitatearen eta inklusioaren inguruan, eta enplegura bideratutako bide oso bat eraikitzen jarraitu nahi dugu haiekin, zertarako eta aniztasun funtzionala duen lantaldearen inklusio soziolaboralean laguntzeko".

Honela gaineratu du **Ainhoa Askasibarrek, GUREAK Itineraryko arduradunak**: "EROSKI-AKADEMIREkin laneratzeko prozesuko etapa guztiak hartzen dituzten ekintza bat baino gehiago izaten ditugu kontuan. Besteak beste: bi erakundeetako profesionalek elkarrekin emandako prestakuntza saioak, EROSKIren dendetako esperientziak (testuinguru errealean lanerako trebetasunak hartzeko modua izan dezaten), Oinarrizko Prestakuntza Profesionalari lotutako praktikak eta ikaskuntza eta esperientzia profesionala konbinatzen dituzten prestakuntza programa dualak".

Era berean, hitzarmenak beste ekimen batzuk hartzen ditu, dagoeneko GUREAK kontsolidatuta dituenak, hala nola desgaitasuna dutenen inklusio soziolaboralari laguntzeko Pauso Berriak programa, zerbitzu okupazionalako formulak eta esperientzia egokituak dakartzana. Baldintza egokiak betetzen direnean, ibilbidearen amaieran partaideak EROSKIren lanpostuetara inkorporatuko dira; horrela, enplegu arrunterako trantsizio mailakatu eta iraunkorra bultzatuko da.

Gizartean eragiteko aliantza

Desgaitasuna dutenen lan aukerak zabaltzeaz gainera, hitzarmenaren asmoa da aniztasunean, ekitatean eta inklusioan oinarritutako antolamendu kultura bat indartzea.

Illo horretan, bi erakundeek elkarrekin landuko dituzte EROSKIren lantaldeei begirako sentsibilizazio ekintzak. Horretaz gainera: inkorporazio aukera berriak identifikatzeko lanpostuak aztertuko dituzte; prozesuak egokituko dituzte

beharrezko gertatzen bada, eta laguntza profesionala bermatuko dute laneratzeko prozesu osoan.

Hitzarmenak orobat jasotzen du koordinazio talde bat sortzea, zertarako eta ekimen guztiei segimendua egiteko, haien eragina ebaluatzeko eta lankidetzan ildo berriak sustatzeko.

Hitzarmen honen bitartez, EROSKI eta GUREAK taldeak elkarrekin hartua duten konpromisoa indartuko dute, eta inklusio soziorabazal eraginkorra sustatuko dute, oinarritzat harturik prestakuntza, laguntza pertsonalizatua eta enplegua eskuratzeko egiazko aukeren sorrera.

EROSKI buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita optikak, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste jardura batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.200 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300, berriz, bazkide eta jabe dira.

Gureak taldeari buruz

Ekonomia sozialeko enpresa bat da Gureak, helburu duena lan aukerak sorraraztea eta desgaitasuna dutenen inklusio soziorabazala indartzea. Gaur egun 6.000 lagunetik gorako talde bat du, eta eskakizun zorrotzeko merkatuetan ari da, hala nola autogintzan, mugikortasunean, elikaduran, arlo soziosanitarioan eta datuen kudeaketa eta komunikazioetan.